

**MAIATZEKO ARTOAREN ARDURA ETA BOST SEME-ALABA  
DAUZKANA EZ DAGO MUSIKA BILA****Euskaldunon postmaterialismoari buruzko gogoeta<sup>1</sup>**

Ronald Inglehart-ek bere *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas* (1991) liburuan zioen mendebaldeko herrialde aberatsetan bizi direnek ongizate materialari, diruari eta ziurtasun fisikoari garrantzia ematek, bizi-kalitatea azpimarratzera pasatu direla. Bere ustez, gizarte aberatsek balore materialistetatik balore postmaterialistetarako jauzia egin dute. Ondorioz, gai politiko berriek (ekologiak, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunak, kontsumitzaileen eskubideak, demokrazia hobetoagoak lortzeko nahia, gutxiengoaren eskubideak, garapen kulturala...) garrantzia hartzeaz gain, era askotako gizarte mugimenduak indartzen joan dira. Ideologia postmaterialista honen adierazle argienak izango lirateke herrietan, lantegietan eta, oro har, politikaren arlo eta maila guztietan erabakiak hartzerakoan gizakien parte-hartzea handitzeko nahia, gizarte gizatiarragoetan eta baketsuagoetan bizitzeko gogoia, garapen iraunkorra lortzea edota herrialde txiroen garapena ahalbidetzea. Postmaterialismoak aldarrikatzen duena da

---

<sup>1</sup> Artikulu hau 2009an XXI. Becerro de Bengoa saiakera saria jaso zuen liburuaren laburpentxo bat da: *Maiatzeko artoaren ardura eta bost seme-alaba dauzkana ez dago musika bila. Euskaldunon postmaterialismoari buruzko gogoeta*. Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz.

ekonomia, enpresak edo dirua gizatiarrago bihurtu behar direla; alegia, *dirua mutilik boberena da, eta nagusirik txarrena*.

## 1. Euskaldunon postmaterialismoa

Inglehart-ek postmaterialismoari buruz eman zuen definizioan oinarrituta, pentsa daitekeena da euskaldunok 70. hamarkadan bihurtu ginela postmaterialista. 60ko hamarkadaren bukaeran, egoera ekonomikoa hobetu egin zen Estatu espainiarrean, erregimen frankista apur bat bigundu egin zen, eta Hego Euskal Herriko eta, orokorki, Espainiako biztanleen balio hierarkia aldatzen hasi zen. Beharrian materialak asetzen hasi ostean, amets sofistikatuagoak izaten hasi ziren Estatu espainiarreko biztanleak 70. hamarkadan<sup>2</sup>. Ekologista, feminista, kontsumitzaileen eskubideen zein gutxitutako hizkuntza, talde eta kulturen alde agertzen hasi ginen.

Egoera ekonomiko, politiko eta sozial baikorragoak ez ezik, European eta Ameriketako Estatu Batuetan lanean ari ziren mugimenduen eta presio taldeen kontzientziazte kanpainek ere eragina izan zuten postmaterialismoaren hedakuntzan.

60. hamarkadaren hasieran, Ameriketako Estatu Batuetan, gutxiengoaren eskubideen eta, oro har, eskubide zibilen alde lanean ari ziren elkarteak eta mugimenduak ugaritu ziren. Gero eta gehiago eta indartsuagoak ziren gizarte demokratagoak eta justuagoak eskatzen zituzten talde antolatuak. Gogoratu, garai hartan, Martin Luther King (1929-1968) beltzen eskubide zibilen alde eta segregazioaren aurka borrokatzen ari zela Amerikako Estatu Batuetan (AEB), eta, ondorioz, 1964. urtean, Bakearen Nobel Saria jaso zuela.

---

<sup>2</sup> Jose Castillo Castillok bere *Sociedad de consumo a la española* (1987) liburuan adierazten duen bezala, 1940tik 1963ra, biztanle bakoitzari zegokion batez besteko errenta 11.042 pezetatik 20.557 pezetara pasatu zen; hau da, hamarkada bi horietan errentaren %86ko hazkundera gertatu zen.

1968ko maiatzean, bestalde, Frantziako ikasleek beste era bateko gizartea aldarrikatzen hasi ziren. 1968ko maiatzeko iraultza frantziarra gizakiak kontuan hartzen ez zituen sistema ekonomiko, kultural eta politikoaren aurkako mugimendu kritikoa zen. Zapalduta zeuden gizarte klase eta taldeen aldeko ideiak defendatzen zituzten.

60. hamarkadaren azkenetan, postmaterialismoa hedatzen ari zen mendebaldeko herrialde aberatsetan, eta horrek, era batera edo bestera, gure pentsamoldea ere ukitu zuen. 70. hamarkadan zehar, mentalitateak aldatzen hasi ziren eta askatasun gehiago eta maila guztietan parte hartze handiagoa aldarrikatzen zuten mugimendu soziopolitikoak ugaritzen hasi ziren.

Estatu espainiarrean Frankoren diktadura hertsia genuen, eta aukera gutxi zegoen aldarrikapen postmaterialistarik egiteko; eta horrek hainbat istilu eta desoreka sortzen zituen. Melitón Manzanasen hilketak (1968), ETaren VI. Biltzarra (1970) edo Burgosko Epaiketa (1970) testuinguru honetan kokatu behar dira. Gainera, mugimendu politiko eta kulturalen ugartzea eta indartzea, ETaren atentatuak, gizarte mugimendu berriak, euskararen aldeko aldarrikapenak...60. hamarkadaren bukaera eta 70.enaren hasiera sasoi nahasia izan zen Euskal Herriarentzat, baina baita garai sortzailea ere. Euskal Hiria jaiotzen ari zen, eta, horrekin batera, baita euskal hiritar berriak ere, hiritar “ustez” postmaterialistak.

Franco hil ostean (1975), Gobernu Espainiar berria hiritarren eskubideei buruzko ardura gehiago erakusten hasi zen. Horrela, 1978. urtean onartu zen Konstituzio Espainolak aldaketa sozio-ekonomiko ugari ekarri zituen. Konstituzioaren 51 artikulua eraginez, kontsumitzaileen aldeko hainbat arau sortu ziren. Emakumeen eskubideen aldeko arauak eta natura babesteko legeak ere ugaritu egin ziren. Euskal abertzaleon nahiak ase ez bazituen ere, 1978. urtean onartu zen Konstituzioak Estatu espainiarreko biztanleen postmaterialismoa haus-

potu zuen. Franko hilda, amets postmaterialistak posible zirela pentsatzen hasi ginen.

Egia da *Maiatzeko artoaren ardura eta bost seme-alaba dauzkana ez dagoela musika bila*, baina 70. hamarkadaren azkenetan, egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala aldatu egin ziren, eta musika berri eta hobeagoen bila hasi ginen euskaldunok; eta, horrekin, gizarte mugimendu berriak agertu ziren Hego Euskal Herrian. Hainbat herritan, zentral nuklearren aurkako batzordeak sortzeaz gain, alderdi edota mugimendu politiko berriak ugaritu ziren (EHAS, Batzarre, EMK, LKI, ESB...), eta ikuspuntu kulturaletik gau-eskolen mugimenduak, zein *Bai Euskarari* ekimenak babes handia lortu zuten. 70. hamarkadan, Hego Euskal Herrian zegoen, nire ustez, Europako esperimendu postmaterialistarik handiena.

Bestalde, 70. hamarkadan, Naturarekiko harreman materialista zalantzan jartzen hasi zen. Horretan eragin handia izan zuen Erromako Klubak. Hain zuzen ere, 1968. urtean, Erroman, 30 herrialdetako 35 irakasle, zientzialari, ikerlari eta politikari elkartu ziren, ingurugiroa jasaten ari zen kalteei buruz hitz egiteko, eta egoera larri hortaz mundua ohartarazteko. Urteetan bildu zituzten datu ekonomikoak, demografikoak eta energiari eta elikagaiei buruzkoak plazaratu zituzten, eta argi adierazi zioten munduari garapen eredu materialistarekin jarraituz gero gizateriak etorkizun beltza zuela.

Egoera hau saihesteko, gizarte aberatsen mentalitateak aldatzea, eta 1975. urtetik aurrera, neurri zehatz batzuk martxan jartzea proposatu zuten. Erromako Klubak eskatzen zuena zera zen: ekoizpen industrialia murriztea, osasun eta hezkuntza zerbitzuak hobegotzea, hondakinak birziklatzeko politikak bultzatzea eta oinarritzko elikagaien ekoizpena hobegotzea.

Nahiz eta Erromako Klubeko lan eta proposamenek kritika ugari jaso zituzten, natur ondasunak mugatuak zirelako argudioa indartu egin zen gizartean. Ondorioz, ugaritu egin ziren na-

turarekiko harreman materialista zalantzan jartzen zuten ikerlariak eta pentsalariak, baita naturarekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen zutenak ere. Erromako Klubak garrantzi asko izan zuen munduan zehar ideia ekologistak eta, oro har, mentalitate postmaterialista hedatzerakoan.

Pentsamendu berri honek Euskal Herrian ere izan zuen eragina. Lemoizen, Deban edo Garoñan egin nahi ziren zentral nuklearraren aurkako protestak eta iskanbilak testuinguru honetan kokatu eta ulertu behar ditugu; bakarrik garapen industrialari eta hazkunde ekonomikoari garrantzia ematen dion mentalitatea zalantzan jartzen zuten protestak ziren.

Europar Batasunean sartzearekin (1986), are eta aberatsago egin ginen, eta, teoriarik behintzat, gure postmaterialismoa indartu egin zen<sup>3</sup>; alegia, ugaritu egin ziren materialak ez ziren beharrianak (ekologia, kultur beharrianak, gizon eta emakumeen berdintasun nahia...). Horrela, garrantzi gehiago hartu zuen kontsumitzaileen osasunaren, segurtasunaren eta interes ekonomikoen babesak.

Europar Batasunaren helburu garrantzitsuena merkatu bakarra lortzea zen, eta, horretarako, ezinbestekoa zen herrialde guztietan kontsumitzaileen babeserako neurriak berdintzea. Hots, estatu eta enpresa guztiek baldintza berdinetan ekoiztu eta lehiatu zezaten, nahitaezkoa zen kontsumitzaileen eskubideen arloa behar bezala garatzea eta hedatzea. Honela, bada, sortu zenetik gaur eguneraino, Europako Batzordearen barruan kontsumitzaileen eskubideak babesteko aholku, zuzentarau eta lege ugari onartu dira, eta horrek eragin positiboa izan du Estatu espainiarreko biztanleen bizi-kalitatean. XXI. mendearen

---

<sup>3</sup> Batasunean sartu eta hamalau urtetara, 2000. urtean, 18.804 eurotako errenta genuen batenaz beste EAEn, eta Batasunean sartu aurreko urtean, 1985ean, 5.213 eurotako. Batasunean sartzearekin, hiru alditan baino gehiagotan igo zen EAeko biztanleko Barne Produktu Gordina.

hasierako kontsumitzaile euskaldunen zein espainiarren egoera ez da 70ekoa bezalakoa.

Ekologiak eta kontsumitzaileen eskubideen inguruko ardurak ez ezik, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunei buruzko gaiak ere garrantzi handiagoa hartu zuen Franko hil ostean. Emakumeen eta gizonezkoen eskubideen auziak oihartzuna lortu zuen, eta ordura arteko mentalitate eta jarrerak matxistak aldatzen, edo behintzat ahultzen, hasi ziren.

Europar Batasunean sartzearekin, emakumeen eskubideen arloak ere eta garrantzi gehiago hartu zuen. Batasuneko legegia hemengoa baino askoz aurreratuagoa zen gai hauetan, eta, ondorioz, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak murrizteko aldarrikapenak ugaritu egin ziren, eta erakunde publikoak emakumeen aldeko ekintza positiboak edo sustapen neurriak bultzatzen hasi ziren. *Emakunde* erakundea testuiguru honetan sortu zen (1988).

Gure postmaterialismoaren beste adierazle bat ere bada garapen bidean dauden herrialdeekiko eta, oro har, pobrezia-erikiko azken urteotan indartu den jarrera positiboa. Balore postmaterialistak hedatzen joan diren heinean, txiroekiko eta etxerik gabe daudenekiko jarrera positiboa hedatzen joan da gizartean. Nahiz eta ideia neoliberalak indartsu egon diren azken urteotan, langabezi sariak jarraitu dute, eta ezer ez dute-entzako laguntza sareak ugaritu egin dira; hain zuzen ere, merkatuari inolako mugarik gabe lan egiten utzita, arazoak areagotzen direlako. Agian, gure kontzientzia txarra lasaitzeko izango da, baina historian aurretik inoiz baino gehiago, herrialde aberatsetan bizi garenok pobrezia-aren, bazterkeria-aren eta gosearen aurka gaudela esaten dugu.

Gure gizartearen bilakaera postmaterialistaren beste adibide bat da gutxitutako hizkuntzei buruzko jarreretan izan den bilakaera. Izan ere, 90. hamarkadan, euskal biztanleen artean orokortu egin zen euskararekiko jarrera positiboa. Aurretik, aber-

tzaleek eta euskaltzaleek zuten bakarrik jarrera hau, baina 90. hamarkadaren erdi aldetik aurrera, ikuspuntu etniko, kultural edo politikotik erdaldunak edota espainiar sentitzen zirenek ere euskara babestearen garrantziaz hitz egiten hasi ziren. Modu xumean hasieran, baina, apurka-apurka, gero eta ozenago, euskararen aldeko kontzientzia orokorra aldatzen hasi zen. Identitate espainola zutenek ere euskarari eta euskal kulturari buruz zituzten aurreiritziak birplanteatzen hasi ziren, eta euren seme-alabak irakaskuntza eredu euskaldunetan matrikulatzen.

Euskararen aldeko testuinguru honetan, euskal kultura babestearen aldeko jarrerak ere asko indartu ziren. Hainbat euskal militanteren kontzientzia postmaterialistari esker, euskal gizartearen mentalitateak aldatu egin ziren 90. hamarkadan, eta euskararen eta euskal kulturaren alde lanean ari ziren erakunde askok hobeagotu egin zituzten euren azpiegiturak. Euskararen irakaskuntzan ziharduten elkarteek (*Aek, Ika, Zenbat Gara, bai & by* elkarteek, adibidez) euren euskaltegi, barnetegi eta bilguneen sarea (Kafe Antzokia, Kalderapeko...) zabaltzea eta sendotzea lortu zuten, eta Ikastola berriak zabaldu ziren (Iparaldean eta Nafarroan, bereziki). Eusko Ikaskuntza zein Euskaltzaindiak ere euren egiturak sendotu zituzten eta kongresu, batzar eta ekimenak antolatzeke gaitasuna hobeagotu zuten. Bertsolaritza bera ere asko indartu zen 90. hamarkadan. Bertso saio eta jaialdietako antolakuntza beste goi mailako edozein ekintza kulturalen parekoa bihurtzeaz gain, bertsolaritzaren inguruan azpiegitura sendoa garatu zen (Bertsolarien Elkarte, bertsolari-eskolak, bertsolari txapelketak, telebista-saioak, aldizkaria, liburuak...). *Egunkariaren* sorrera (gero *Berria* bihurtu zena), euskarazko herri aldizkarien eta telebisten agerpena edota Kontseiluak bultzatutako euskararen inguruko XXI. Mendeko Akordioa bezalako ekimenak ere euskal kulturak hamarkada honetan eman zituen fruitu bikainen adierazle dira. Egia esan, 90. hamarkadan, euskal gizarteak inoiz baino argiago erakutsi zuen euskal kultura eta euskara babestearen alde ze-

goela. Horrela, aurretik inoiz baino jende gehiago hurbildu zen euskarara eta euskal kulturara<sup>4</sup>.

Euskal gizarteak 30-40 urtetan izan duen bilakaera izugarria izan da. Gaur eguneko euskal hiritarrok gure oinarritzko beharrianak asetzeaz gain, beste beharrian batzuk ere ase nahi ditugu. Osasuntsu eta kutsadurarik gabe bizi nahi dugu, informazio egiazkoa, osoa, objektiboa eta ulergarria jaso nahi dugu, gure seme-alabentzako kalitatezko heziketa euskalduna nahi dugu, gizon eta emakumeek eskubide berdinak dituztela oihukatzen dugu, euskal kultura eta euskara babestearen alde gaudela esaten dugu, ordezkaritza, kontsulta eta partaidetzarako eskubidea dugula pentsatzen dugu, eta gutxiagotasun eta babesgabetasun egoeretan babestuta egoteko eskubidea garatu nahi dugu. XXI. mendearen hasierako euskaldunon mentalitatea ez da 70ekoa bezalakoa.

## 2. Gure postmaterialismoaren kontraesanak

Argi dago orain dela urte batzuk baino postmateristagoak garela, eta gure historian beste inoiz baino gehiago, materialak ez diren beharrianak asetzea nahi dugula. Hala ere, eta esandako guztia ukatu gabe, iruditzen zait, sarri askotan, euskaldunon postmaterialismoa jarrerren edota ideien mailan gelditzen dela; bestela esanda, gure postmaterialismoa azalean gelditzen dela, eta oraindik pauso asko eman behar ditugula benetako gizarte postmaterialista sortzeko.

---

<sup>4</sup> 1997. urtean, adibidez, 14.808 ikasle eta 985 irakasle zituen *Aek*-ak; bere historian aurretik inoiz baino ikasle eta irakasle gehiago. Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, 3.000 bazkide zeuzkan eta Ikastolen Konfederazioak 40.000 bat ikasle zituen. Hamarkada horretan, 10.000 bat euskal liburu argitaratu ziren, eta *Kutsidazu bidea Ixabel!* eleberria 20. argitalpenera heldu zen. Ikus-entzunezko euskarazko komunikabideetara hurbiltzen zirenen kopuruak ere asko handitu ziren hamarkada horretan. Goenkale telesailak, adibidez, milioi erdi pertsonengana heltzea lortu zuen.



Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Behatokiak egin zuen ikerketa baten arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteek garrantzi gutxi ematen diote erlijioari eta politikari. Alegia, gazteen balore hierarkian ideologiak eta sinismenak azken postuetan agertzen dira. Aldiz, dirua eta ondasun materialak dira gazteen kezkarik handienetarikoak. Are gehiago, adiskideek edo familiak berak baino ardura handiagoa eragiten diete besteek eurei buruz duten iritziak edo norberaren irudiak edo itxurak. Modu berean, %5era ere ez da heltzen alderdi politikoetan, talde bakezaleetan edo sindikatuetan parte hartzen dutenen ehunekoa. Bestela esanda, %5era ere ez da heltzen benetako ideologia postmaterialista praktikan jartzen duten gazteen ehunekoa. Eta hau gazte kopuru txikiegia da, nire ustez, etorkizunerako balore postmaterialistetan oinarrituriko gizarte bat eraikitzen ari garela esateko. Egia esan, hedonismoa, materialismoa eta individualismoa bultzatzen diren gizarte kontsumista honetan, oso zaila da gazte postmaterialistak agertzea.

Gazteek ez ezik, nagusiok ere arazo asko ditugu benetako postmaterialista gisa bizitzeko eta jarduteko. Ekologistak garela esaten dugu, baina, gero, autoa erabiltzen dugu edonora joateko, ez dugu behar bezainbat birziklatzen eta energia eta ur asko alferrik galtzen ditugu.

Gaur egun, naturarekiko harremanak ulertzeko modu nagusi bi agertzen dira: naturaren gehiegizko erabilerak atzera bueltarik gabeko kalte eta arriskuak sortzen dituela dioen teoria (Zero hazkundearen Teoria), eta, bestetik, Zero Hazkundearen teoria ezkorregia dela eta naturak berriztatzeke eta baliabideak etengabe sortzeke gaitasun izugarria duela (hazkunde esponentzialaren teoriak). Oinarrian, ikuspuntu bi hauen atzetik mentalitate materialista eta postmaterialista daude.

Natur ondasunekiko harremanak ulertzeko eta antolatzeke bi modu hauen arteko gatazka gure artean ere ematen da. Ipar

Euskal Herrian, adibidez, laborariak kexu dira nekazaritzarako egokiak diren lurra galtzen ari direlako, hain justu ere, lurra etxeak eraikitzeko erabiltzen delako. Laborarien sindikatuek salatu dutenez, turismoak eta oporretarako bigarren etxebizitza bat nahi dutenek bultzatzen duten espekulazioaren ondorioz, laborantza lur asko oso garesti jartzen dira salgai, eta lurra behar dituzten gazteek ezin ditzakete eskura. Gehiago esan daiteke, zenbaiten ustez, lurrarekiko jarrera honek zonalde honetako euskal identitatea eta kultura desagerrarazten ari da.

Ipar Euskal Herrian ez ezik, Hego Euskal Herrian ere lurra-  
ren inguruan eztabaida garrantzitsua dago materialisten eta postmaterialisten artean. Eusko Jaurlaritzak lurzorua legea onartu zuen 2008an, eta horrek ikuspuntu kontrajarriak eta eztabaida bizia sortu zituen.

Garai hartan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburua zen Javier Madrazoren esanetan, legearen irizpide nagusia zen lehenetsuna ematen zitzaiola etxebizitza izateko eskubideari, lursailen propietatea edukitzeko eskubidearen gainetik. Hone-  
la, bada, udalek lurzoruak urbanizatzeko prozesuak abiatu ahal izango zituzten hirigintza agenteen bitartez, lurra-  
ren jabeak berak urtebetean abian jartzen ez bazuen. Bestalde, le-  
geak gehienez eraiki daitekeenari buruzko indizeak ezartzen zituen, garapen iraunkoraren aldeko ekimen bezala. Testuak debekatu egiten zuen txaleten urbanizazioak eraikitzea 3.000 biztanletik gorako gunetan, zabalkunde-eremuan.

Batzuentzat, Eusko Jaurlaritzaren lurzorua legea tresna eraginkorra izango da benetako gizarte postmaterialista sortze-  
ko; hain zuzen ere, administrazio publikoentzat berreskuratzen duelako hirigintza garapenaren kontrola, lursailen jabetza esku pribatutik aterez. Legeak planteatzen dituen desjabetzeko for-  
mulek espekulazioa gelditzea ahalbidetuko dute.

Ikuspuntu honen aurka enpresaburuaren elkarteak agertu zi-  
ren. Arabako Enpresaburuaren Elkarteko (SEA) Idazkari Nagusi

den Jose Manuel Fartok zera esan zuen Radio Vitorian egin zioten elkarrizketa batean: “Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruaren Legearen metodologia juridikoa espoliaziotik gertu dago”.

Hauek ez dira lurraren inguruan Euskal Herrian ditugun arazo bakarrak. Larrako (Nafarroa) eski estazioaren inguruan ere natur ondasunak antolatzeke modu bi agertu izan dira. Erronkariko Ibarreko Batzarra 90eko hamarkadaren amaieran hasi zen bultzatzen Larran eski estazioa egiteko proiektua. Gerroztik, Larrako auziak zer esan asko eta ikuspuntu kontrajarri ugari sortu ditu. Alde batetik, Larrako eski estazioaren aldekoak daude. Nafarroako Gobernuaren eta Erronkariko Batzarren arabera, eski estazioak bailararen sustapen ekonomikoa ahalbidetuko du. Honela, bada, Nafarroako Parlamentuak 60 hektareako eremua utzi zituen Larrako Natur gunetik at, eski estazioa egin ahal izateko, eta 2006an, *Roncalia* egitasmoa jarri zen martxan, besteak beste, iraupen eskiko pisten kopurua eta kalitatea hobegotzeko helburuarekin. Eski estazioaren aldekoek zioten Larra eremu pribatua dela, eta Batzarrari dagokiola kudeatzea; beste hitz batzuekin esanda, Batzarrak baiezkoa eman zuen heinean, hauen ustez, inork ezin du gai horri buruz ezer esan.

Eski estazioaren kontra sortu zen Larra-Belagua taldeak, beriz, European aurkeztu zuen proiektuaren kontrako salaketa, eta Europak aintzat hartu zuen. Hauen ustetan, eski estazioak kalte handia egingo dio Larrako Natur guneari. Gainera, Nafarroako Gobernuari dagokio Larrako Natur gunearen kudeaketa, eta ez Batzarrari. Beraz, Batzarrak ez du, gai honetan, azken hitzik. Nafar guztiek hartu beharreko erabakia da.

Batzuen ustez, Mendialdeko herritarren eta hiriko ekologisten borroka izan zen Larrakoa. Nire ustez, materialisten eta postmaterialisten arteko borroka izan zen.

Nolako harremana izan behar dugu natur ondasunekin? Nork erabaki behar du lur, baso edo uren erabilerari buruz?

Nork du hauek kudeatzeko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea? Gizarte postmaterialista bat sortzeko pausoak eman ditugu, baina oraindik natur ondasunekiko nahi ditugun harremanak zehaztu barik dauzkagu oinarrian. Eta horrek nolabaiteko egonezina, kontraesanak, zalantzak eta eztabaidak sortzen ditu; eta benetako gizarte postmaterialista sortzea oztopatzen du.

Bestalde, askotan iruditzen zait txiroekiko inkestetan agertzen ditugun jarrera positiboak intentzioen mailan gelditzen direla, eta ez gaudela prest hauen ongizatea hobeagotuko duten politika eraginkorrak bultzatzeko. Ez gara konturatzen gizarteko txiroak alboratuta gure ongizatea ere kaltetua gelditzen dela.

2005ean, Parisen, gauero milaka auto erre zituzten aste batzuetan zehar. Nahiz eta, garai hartan, Frantziako Barne Ministroak, Nicolas Sarkozy-k, delinkuentzia arruntarekin lotu zituen istiluak, egun haietan bizi izan zen anabasa sistemaren aurkako pobreen eta baztertuen amorruren isla izan zen, nire ustez; 60. hamarkadan, batez ere Magreb-etik eta Sahara azpiko Afrikatik Parisera bizitzera joan ziren etorkinen seme-alabei aukerak ematen ez dien sistema hertsia baten aurkako oihu bortitza. Izan ere, *etxe butsa, gerra butsa*.

Pariseko istiluek baita erakutsi zuten zeintzuk diren mendealdeko herrialde aberatsek gaur egun dituzten erroka garrantzitsuenak: gizartean tokirik bilatu ezinik dabiltzanei eta baztertuta daudenei behar bezalako erantzuna ematea, eta gizartearen kohesio soziala ziurtatzeko politika berriak eta eraginkorrak sortzea.

John Gray-k bere *Falso Amanecer. Los engaños del capitalismo global* (2000) liburuan dioen bezala, gure gizarteetan *anarkokapitalismoa* gailentzen ari da. Estatuak eta gobernuek hiritar guztien ongizatea ziurtatzeko politika egokiak bultzatzeko gai ez direnez, gero eta anabasa handiagoko gizarteak agertzen ari dira. Langabezi estrukturalak, txiroen eta etxerik gabekoen gero eta kopuru handiagoak, ghettoak edota kriminalta-

sun tasa izugarriak dituzten gizarteak ugaritzen ari dira. Eta egoera honen arriskueteriko bat da krisian sartzen diren hiri, auzo eta herrialdeak agertzen direla. Areago, John Gray-ren ustez, pobrezia eta langabezia sor dezaketen anabasen ondorioz, sistema kapitalista bera ere zalantzan jar daiteke, gizarte klaseen arteko borrokak ugaritu daitezkeelako edo erreakzio faxistak egon daitezkeelako. Zentzu honetan, oso kontuan hartzekoak dira Frantziako hauteskundeetan Le Penek jasotzen dituen bozkak, Fortuynek Holandan lortu zuen indarra, eta Berlusconi eta Bossik Italian eta Joerg Haiderrek Austrian eskuratuko boterea.

Begiraten den ikuspuntutik begiraten dela, txirotasuna izango da datozen urteotan izango dugun aferan nagusienerarikoa, Euskal Herrian zein mundu mailan. Arazo honi behar bezalako erantzuna ematen ez bazaio, gizarte gatazka handituko da eta gure bizi kalitatea kaltetuko. Esanak esan, benetako postmaterialismoak pobreekiko elkartasun zintzoa eskatzen du.

Gure “ustezko” postmaterialismoaren kontraesanekin jarraituz, aipatzekoa da oraindik ere indartsu dagoela gizakiek irabazi pertsonala bilatzen dutenean, gizarte osoaren ongizatea lortzen dutela dioen pentsamolde materialista. Ideologia hau dutenen ustez, egoismo pertsonala ondasun soziala bihurtzen da, eta mozkin pribatua gizartearen ongizatea lortzeko benetako motorea. Gobernu egokia, kudeaketa garдена, gizakien zein ekonomien garapen iraunkorra, kalitatezko enplegua eta aberastasun ekonomikoa berez lortzen dira, ekimen pribatua oztopatzen ez bada; bestela esanda, merkaturi eta enpresei inolako oztoporik gabe lan egiten uzten bazaizkie. Enpresen helburu bakarra mozkinak ziurtatzea izan behar da, garapen ekonomikoa lortu nahi bada. Hortaz, enpresak nolabaiteko erantzukizun soziala izatera behartzen badira, hau da, euren etekinen zati bat gai sozialetan gastatzera behartzen badira, traba egiten zaio hazkunde ekonomikoari;

are gehiago, horrela eginez gero, gizakiaren askatasuna murrizten da. Esanak esan, oraindik asko dira pentsatzen dutenak postmaterialismoak garapen ekonomikoa eta gizartearen aberastasuna oztopatzen duela.

Gure postmaterialismoak eraginda, kontsumitzaileen esku-bideen alde eta kontsumo arloko iruzurren aurka gaudela esaten dugu, baina gutxi egiten dugu eskubide horiek babesteko. Oraindik ere kontsumitzaileek arazo ugari dituzte, eta iruzur ugari jasan behar izaten dituzte.

Bizi garen kontsumo gizartearen, gure psikologiarekin jolasteko eta gure kontsumo portaerak bideratzeko hainbat trikimailu asmatzen eta erabiltzen dituzte marketing adituek; arrakastaz erabili ere. Markak, publizitatea, merkealdiak, produktuen itxurak, denden eta espazioen antolaketak edo salneurriak oso ondo pentsatzen dituzte, kontsumitzailea nahi duten bidetik eramateko. Baina gure kontsumo grinak pizteaz gain, gure esku-bideak ere urratzen dituzte, sarri askotan: gure osasunerako eta segurtasunerako arriskutsuak diren produktuak saltzen dizkigute, erosketaren fakturak ukatzen dizkigute, etiketa faltsuak jartzen zaizkie produktuei, legez kontrako publizitatea egiten da edota produktuen prezioak, pisuak edo neurriak ezkututzen dira nahita. Ekoizle eta banaketa enpresa askori ezer gutxi axola zaie gure eskubideak zapaltzea, salmentak eta etekinak handitzen badituzte.

Alabaina, argi adierazi nahi nuke, nire ustetan, kontsumitzaileok ere erru asko daukagula gure eskubideen urraketan. Izan ere, sarri askotan, kontsumitzaileok ez gara behar bezala arduratzen dauzkagun eskubideak babesteaz. Gainera, kontsumitzaile gehienok gutxi informatzen gara eskubideen zapalaketaren aurrean eman beharreko pausoei dagokionez.

INC-k 2004. urtean egin zuen ikerketa baten arabera (INC, 2004), Espainiako lau kontsumitzailetik hiruk zioten informazio gutxi zutela kontsumitzaile gisa dauzkaten eskubideei buruz.

Bakarrik kontsumitzaileen %23ak zioen ondo informatua zegoela. Are gehiago, kontsumitzaileen %57ak ez zuen erreklamaziorik egiten arazo bat zuen bakoitzean, prozesu zaila zela pentsatzen zuelako, eta %47ak esaten zuen ez zekiela inoiz non egin behar izen erreklamazioak. Alferrik da erakundeei kontsumitzaileen aldeko arauak, legeak eta neurriak eskatzea, gero horiek behar bezala erabiltzeko gai ez bagara.

Feministak edo, gutxienez, emakumeen eskubideen aldekoak garela esaten dugu, baina onartu egin behar dugu teoria eta praxia ez datozela bat gizon eta emakumeen eskubideei buruz hitz egiterakoan. Errealitatean, desberdintasun nabarmenak onartzen dituzten gizarteetan bizi gara: gizon eta emakumeek botere politiko, sozial eta ekonomiko desberdina dute, oraindik ere. Honela, bada, gure postmaterialismoa bere azken mailaraino eraman nahi badugu, ezinbestekoa da teoriatik praxira pasatzea; hots, azken urteotan emakumeen eskubideak babesteko egin diren lege eta arauak betearazteko pauso eraginkorrak eman behar dira. Izan ere, gizon eta emakumeek eskubide berdinak dituzten gizarteetan, ongizate maila altuagoak lortzen dira; aldiz, emakumeen eskubideak zapaltzen direnean, gizarte gatazkak areagotzen dira. Esanak esan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna da, nire ustez, edozein demokraziaren zutaberik garrantzitsuenetarikoa. Gehiago esango dut, kohesio soziala ziurtatzeko, gizarte postmaterialistak sortzeko eta benetako demokraziak lortzeko ezinbestekoa da generoan oinarritutako bazterketekin bukatzea. Eta horrek eskatzen duena da orain arteko ikuspuntu eta ereduak aldatzea, lege zuzenak sortzea, kontrol neurri egokiak bultzatzea eta emakumeen aldeko elkarte eraginkorrak izatea; hitz gutxitan esateko, benetako postmaterialistak bihurtzea.

Gure postmaterialismoaren arabera, garatzeko bidean dauden herrietako gosearen aurka eta hauen garapenaren alde gaudela diogu, baina gero herrialde txiroen ustiaketa bortitza onartzen dugu, eta herrialde hauetako umeek egindako jostai-

lua edota arropak erosten ditugu, nolako lan-baldintzetan eginak dauden galdetu gabe.

Masa kulturadun gizarteak funtzionatu dezan, etengabe ekoitzi eta saldu behar du, eta, horretarako, nahitaezkoa da produktuak estandarizatzea, katean ekoiztea eta merke saltzea. Beraz, multinazional askok esku lana merkea den, gizarteko txiroenen lan esplotazioak arazoak sortzen ez dituen, edota sindikatuak ahulak diren estatuetara eraman dituzte euren lantegiak, kostu gutxiagorekin ekoizteko eta etekinak handitzeko. Giza eskubideak bermatzen ez diren tokiak oso egokiak dira lantegiak jartzeko, gehiegikeriak inolako muga edota kontrolik barik egin daitezkeelako. *Made in China* jartzen duten arropa merkeen atzetik beharginen eskubideen eta, oro har, giza eskubideen zapalketa basatiak daude, maiz. *Jende pobrea, neke doblea*.

Postmaterialistak gara, eta bakezale gisa aurkezten dugu gure burua, baina, egiatan, gutxi egiten dugu bakearen alde. Amin Maalouf-ek bere *Las cruzadas vistas por los árabes* (1984) liburuan dioen bezala, garapen bidean dauden herrialdeekiko benetako atxikimenduak bakea ziurtatuko luke munduan, baina ez dirudi mendebaldeko gizarteetan hori egiteko prest gaudenik. Maalouf-en arabera, herrialde islamiar pobreetako biztanleriaren artean herrialde aberatsekiko dagoen amorrua euren seme-alabentzat inolako esperantzarik eta aurrerabiderik ikusten ez dutenen frustrazioaren ondorioa da. *Bizitze gaitzak hil nahia*. Bere ustez, mundua hobetzeko, ezinbestekoa da herrialde pobreen garapen ekonomikoa bultzatzea. *Diruak malkarrak zelaitzen*. Herrialde pobreek bizi duten irteerarik gabeko egoera aldatu daitekeela ziurtatzeak esperantza ekarriko luke herrialde hauetara, eta horrekin bakeak aukera gehiago izango lituzke munduan. Prest gaude bakearen eta garapen bidean dauden herrialdeen aldeko ekimenak bultzatzera? Edo gure bakezaletasuna gezurrezkoa da?



Goian esan dut 90. hamarkadan, euskal biztanleen artean orokortu egin zela euskararekiko eta euskal kulturarekiko jarriera positiboa, baina urteak aurrera doaz eta gure kulturak eta euskarak ahul jarraitzen dute. Postmaterialistatzat eta modernotzat dauzkagu geure buruak, eta gutxitutako hizkuntzak eta kulturak babestearen alde gaudela esaten dugu, baina zenbat egiten dugu euskal kultura indartzeko? Zenbatekoa da euskal kulturarekiko gure konpromisoa? Batzuen ustez, euskal kulturaren eta euskararen inguruko militantzia ahultzen ari da. Postmaterialistagoak gara teoriarik, baina gure ingurune hurbilean ixten ari gara eta gero eta denbora gutxiago dugu euskal kulturaren eta euskararen alde debaldeko lana egiteko. Gure indibidualismoak gizarte sareetan partehartzea oztopatzen digu. Ondorioz, euskal kulturak buztinezko zangoak ditu eta bere inguruan lanean diharduten erakunde askok baliabide ahulegiak dituzte euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. Gogoratu, *Berria* egunkariak arazo ekonomiko asko dituela, euskaraz diharduten herri aldizkari, egunkari (Euskal Herriko zazpi hitzek 36.604 harpidedun zituzten 2005ean eta 19.439 2008an) eta telebista askok diru arazo larriak dituztela eta euskal liburugintzan aritzen den industria ahulegia dela euskal liburuaren ekoizpen egoki bat bultzatzeko. Esan beharrik ere ez dago euskarazko antzerkiak eta zineak ere hutsune nabarmenak dituztela.

Oro har, gutxi dira euskal kulturgintzako arlo ezberdinetara hurbiltzen diren herritarrak. Gehien erakartzen duen euskal komunikabidea ETB 1 da eta ala ere euskaldungoaren erdira ere ez da heltzen. *Berria* egunkaria bere irakurlegoa handitzen joan bada ere, bere salmentak Euskal Herrian saltzen diren egunkarien %5era ere ez dira heltzen, eta *El Correo*-k baino 10 aldiz gutxiago saltzen du (batez beste *El Correo*-k 115.000 egunkari saltzen ditu egunero). Honekin batera, asko dira diotenak euskal kultura gezur sozial batean bizi dela. Liburuak eta diskoak ekoiztu, saltzen direnak baino askoz gehiago ekoizten

dira, eta jendeak erosi, irakurtzen duena baino gehiago erosten du. Ikuspuntu honetatik, euskal kultura inondik ere ez duen indar itxura ematen egongo litzateke.

Bertsolaritzak onarpen sozial azpimarragarria badauka ere, ez dira gutxi diotenak bertsolaritzak lortu duen “boom” hau euskal kulturaren etorkizunerako arriskugarria izan daitekeela. Zenbaitzuen ustez, bertsolaritzak ez dagozkion espazio eta funtzioak eskuratu ditu, eta, ondorioz, beste kultur agenteei (musikari, dantzari, antzerkiari...) lekua kentzen die. Zentzu honetan, bertsolaritzak irakaskuntzan, komunikabideetan edota edozein erako jaialdietan duen jarraipenak beste adierazpen kultural batzuen bilakaera oztopatuko luke.

Honi guzti honi lotuta, oso kontuan hartzekoa da euskara oraindik ere ahul dagoela. Alde batetik, Euskal Herriko biztanle gehienek ez dakite euskaraz. Gainera, etxean erabiltzen den euskarari dagokionez, 1991. urtetik erabilera ez da asko hazi EAEn. Ezagutza handitu egin da, baina etxean egiten den euskararen erabilerak berdin jarraitzen du. Are gehiago, euskaldunen artean gero eta gutxiago dira etxean euskaraz hitz egiten dutenak. Horrekin batera, azpimarratzekoa da 2005. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eman zituen datuen arabera, D ereduan ikasten zuten ikasleen %68k ez zuela gainditzen 16 urterekin beharrezkoa den euskararen ezagutza maila. Bestela esanda, asko dira eskolaren bidez euskaraz hitz egiten dutenak, baina baita D eredutik euskaraz hitz egiten behar bezala jakin gabe ateratzen direnak. Aipatzekoak ere badira erabileraren inguruan dauden arazoak. Euskararen alde egin diren ekimen eta kanpainak gurasoak euren seme-alabak D ereduan matrikulatzera bultzatu badituzte ere, hori ez da erabileran islatu. Gaur eguneko gazteek, batez ere hiriburuetan bizi direnek, euskaraz aritzeko edota harremanak euskaraz egiteko aukera gutxi dute. Gainera, kontuan hartu behar dugu mundua globalizatzen ari dela, eta horrek eragin zuzena duela gure kultura eta hizkuntzarengan.

### 3. Azken ondorioa

Gure postmaterialismoak aurrerapausoak eman ditu 60. hamarkadatik gaur eguneraino, baina iruditzen zait asko falta zai-gula benetako gizarte postmaterialista lortzeko. Gure ideologia postmaterialistak kontraesan gehiegi ditu gizarte postmaterialista batean bizi garela esateko. Agian, ongizate materialari, diruari eta ziurtasun fisikoari iraganean baino garrantzi gutxiago ematen dizkiegu eta bizi-kalitateari garrantzi gehiago, baina ezin da esan balore materialistetatik balore postmaterialistetarako erabateko jauzia egin dugula. Izan ere, euskal gazteriak garrantzi gehiago ematen dio diruari, kanpo itxurari, interneti eta ondasun materialei, erlijioari eta politikari baino. Euskaldunok natura zaintzearen alde gaudela esaten dugu, baina gero dena kutsatzen dugu, energia eta ura alferrik gastatzen ditugu eta ez dugu behar bezala birziklatzen. Euskal kultura eta euskara babestearen alde gaudela esaten dugu, baina gero erdaraz hitz egiten dugu barra-barra, eta euskarazko kultur produktu gutxiegi erosten dugu. Hirugarren munduaren esplotazioaren aurka gaudela aldarrikatzen dugu, baina gero etengabe erosten ditugu herrialde pobreetan baldintza oso txarretan ekoiztutako produktu merkeak. Gure ekoizteko modu basatiek eta garapen bidean dauden herrialdeekiko begirune faltak mundua arrisku-tsuagoa, ezegonkorragoa eta desorekatuagoa egiten dute, baina guk lasai egiten dugu lo. Esanak esan, iruditzen zait kontraesan asko ditugula, eta gure postmaterialismoa teorian gelditzen dela.

Benetako gizarte postmaterialista bat lortu nahi badugu, gure balore eta mentalitate materialistak errotik aldatu behar ditugu, eta gizarte berri bat eraiki. Maiatzeko artoaren ardura eta etorkizuneko seme-alaben ongizatea ahanzi gabe, musika berria egiteko gai izan behar gara. Hori bai, tradizioz heldu zaizkigun hizkuntza, kultura eta ohiturak ahanzi gabe. Barandiaranek zioen bezala (1999:239), “gure tradizio kulturalaren oinarri eta zutabeak bizirik dira eta oso baliokoak dira gure herrien

bizimoduak egituratzeko, indartzeko eta zentzu guztiz euskaldu-na emateko: horretan dugu gure esperantza jarrita”.

#### **4. Aipatutako liburuak**

- Barandiaran, J. M. (1999): “Breve estudio sobre la Etnia y sus raíces” *in Etnografía del Pueblo Vasco, Etor-Ostoa, Lasarte-Oria*.
- Castillo, J. (1987): *Sociedad de consumo a la española*. Eudema, Madrid.
- Gray, J. (2000): *Falso Amanecer. Los engaños del capitalismo global*. Paidós, Madrid.
- INC (2004): El nivel de conocimiento de las instituciones de protección a los consumidores y la percepción de los derechos de los consumidores y usuarios. INC, Madrid.
- Inglehart, R. (1991) *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*. Cis, Madrid.
- Juaristi, P. (2010): *Maiatzeko artoaren ardura eta bost seme-alaba dauzkana ez dago musika bila. Euskaldunon postmaterialismoari buruzko gogoeta*. Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz. XXI. Becerro de Bengoa saiakera saría, 2009.
- Maalouf, A. (1984): *Las cruzadas vistas por los árabes*. Alianza, Barcelona.

*Patxi Juaristi*